

# Ipuinak, tabuekin hausteko

## Ramon Solsona



(Bartzelona, 1950). Filologia Erromaniko eta Hispaniko lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Hogei urtez bigarren hezkuntzan ari da eta 1992tik literaturaz baino ez da arduratzen. *Figures de calidoscopi* (1989), *Les hores detingudes* (1993), *DG* (1998), *No tornarem mai més* (1999) eta *Línia blava* (2004) eleberriak argitara eman ditu. 1994 urtean Crítica Serra d'Or, Prudenci Bertrana eta Lletra d'Or sariak jaso zituen *Les hores detingudes* eleberriatik. Baita *Llibreta de vacances* (1991) eta *Cementiri de butxaca* (2006) kontakizun liburuak idatzi ditu ere. Prentsa eta irratian kolaboratzaile gisa dabil eta telesailetarako gidoiak idazten ditu.



# Haragiaren tentaldiak

Ramon Solsona

Kolejioko fraideek ikasarazi zizkidaten buruz Espainiako ibaien adarrak, esker zein eskubikoak, latinezko aditzak, Jacoben hamabi semeak, “Con diez cañones por banda” izeneko poema... Hura guztiaz ez naiz gehiago oroitzen, baina gizakiaren etsaiak nortzuk diren ez ditut sekula ahaztuko.

Bartolome anaiak lehen Jaunartzea egiteko prestatzen gintuen, katixima mailukadaka buruz kaskoan sartuz. Agindu nahasiak eta hitz ulertezinak, Bartolome anaiak haurron hizkuntzara egokitzen lanik hartu gabe errepika eta errepika jarduten ginen. Bere obsesio bakarra gizakiaren etsaiengandik aldentzea zen; eta etsaiak hauek ziren: mundua, deabrua eta haragia.

“Hiruetatik haragizkoa da okerreña” zioen behin eta berriz izua sartzen zizun ahots trumoitsu batekin. Hain zen trumoitsua non ni ez bainintzen galdetzera ausartzen. Nik zergatik haragia zen bekatu eta ez arraia edo txokolatea jakin nahi nuen. Etxean amak kuzinatzen zituen haragi zatia edo oilasko errea ikusten nituen eta nire arimarako ez nien inolako arriskurik ikusten. Baina nik sinistu egiten nuen Bartolome anaiak esandakoa eta izutzen ninduen nire gurasoek, katoliko sutsuak zirenak, ez izatea inolako eragozpenik anaia eta biok etsaia ahora eraman genezan.

Egun batean konfesoreari galdetu nion ia zer zen haragizko bekatua. Berez atera zitzaidan, naturaltasun osoz, zeren iruditzen baitzitzaidan hura esplikatzeko kolejioko konfesorea zela pertsonarik egokiena. Ordea, kalkulu akats bat izan zen. Ez nuen espero erantzuna sermoi bat izango zenik: geure bekatu larrien ondorioz Jaungoikoaren sufrimenduak zirela-eta jardun zen, hala nola arimaren bihurritzeaz infernu eternalaren garretan ere. Behin eta

berriz esan zidan jakin-minaren aurrean ez emateko amore, jakin-minak pentsamendu txarretara eramaten gaituelako, eta, era berean, pentsamendu txarrek haragiaren tentaldira. Nik azken hau ondo ulertzen nuen, haragiak horixe baietz tentatzen ninduela.

Untxi eta arrozeko plater baten aurrean, esaterako, pentsamendu txarrek esaten zidaten: “Jan ezazu izter bat, jan ezazu”. Baina nik gogoei eusten nien heroiarena egiten, eta dena jan nezan gurasoen garrasi eta zaplaztekoak arren, untxi zatiak alde batera egiten nituen eta buruz aitagureak eta abemariak otoitz egiten nituen, eror ez nendin tentaldian. Aitortu behar dut alaiki eramaten nituela zigorrak eta zartakoak, martiriaren barne pozarekin, eta iritsi nintzen pentsatzera santu izateko karrera egingo nuela.

Nire santutasuna, ordea, aldizkakoa zen, zeren, konfessorearen mehatxuak arren, ikusminaren aurrean amore eman nuen eta orduan erlijio kanpoko bidetatik jo nuen. Probatu nuen ikaskide basati batzuekin, ikasgelan ezertxo ere ez dakiten baina kalean bizitzaren entziklopedia bera diren horiekin. Inguruka ibili gabe zuzen egin nien galdera, mutil berdinen arteko hizketaldia balitz bezala, ia haragiaren tentazioa zer zen. Ustekabe bat izan nuen, ez nuen espero ezagutzara iristeko pasahitza eskatuko zidatenik. Galdetu zidaten: “ba al dakizu larrua jotzeak zer esan nahi duen?” Apur bat galduta, euren taldekoa banintz bezala jokatzuz, esan nien: “Bai, baina orain ez naiz gogoratzen”. Barrez lehertzen hasi ziren, eta ni erantzunik gabe ez ezik, beste galdera berri batekin gelditu nintzen.

Amari galdetzeko inozokerian erori nintzen: “Zer esan nahi du larrua jotzeak?” Erantzuna bikoitza izan zen, hitzez eta ekitez. Belarrondoko bat eman zidan, berriro nire jakin-mina zapuztuta nengoen, eta gainera, amak beste galdera bat egiten zidala: “Hori erakusten dizute kolejoan?”

Egundokoa zen nire nahasmena. Erotu egiten nintzen haragi platerkaden eta “larrua jotzea” deitzen zenaren arteko loturak bilatzen, inork ere argitu ez zidana, bestalde.

Gertu zegoen Jaunartze eguna. Katixima hitzez hitz errezitatzeari utzi gabe, Bartolome anaiak ekin zion errituaren zertzelada teknikoak erakusteari. Egon zen bat nik berehalaxe haragiaren tentazioarekin lotu nuena. Ostia hortzekin ukitu behar ez zela eta, gure Jaunaren haragia osoa irentsi behar zela, mastekatu gabe. Segituan praktikara eraman nuen. Pentsatzen nuen haragiaren misterio guztiz misteriotsua hostia konsagratuarena zela: haragia jainkoa zen eta kolpe bakar batez irentsi behar zenuen.

Horrela bada, etxean haragia jaten hasi nintzen eta gurasoek ez ninduten gehiago zigortu. Baina etengabe egiten zidaten errieta:

“xehetu ondo”, esaten zidaten. Nik mastekatu itxura egiten nuen eta irensten nituen zati osoak, zeharo konbentzitua Bartolome anaiaren aginduak zuzen-zuzen jarraitzen nituela. Egun batean, tomatea bezain gorri jarri nintzen arte. Haragi pilota bat nuen eztarrian, ez atzera ez aurrera. Itotzen nintzen, haizea falta zitzaidan, eta desesperatua laguntza eskatzen nuen bitartean, gurasoak eta anai-arrebek urduritasunez erantzuten zuten eta agindu kontra-jarriak ematen zizkidaten: “Ibili hadi”. “Egin salto”. “Eseri”. “Edan ura”. “Bota”. “Hartu arnasa sakonki”.

Gertaera lausoki gogoratzen dut, orduantxe hilko nintzelako konbentzimendua izan ezik. Ontzat ematen dut familiaren memorioan irauten duen gertaeren sekuentzia, haren arabera, aitik eman zidan bizkarrean hain kolpe handia, non, haragi pilota mahaiaren bestalderaino botarazi baitzidan. Esaten dute, baita ere, negar atsekabetua egiten nuela haragia hotzekin ukitu nuelako.

Behin ia mortala izan zen korapilo hartatik libre, gurasoek doktor Gelpírengana eraman ninduten, azter nintzan. Han argia ikusten hasi nintzen. Gizon miragarri hura, bata zuriz jantzita eta betaurrekoen gainetik begiratzen zuena, aztertu ninduen eta zenbait galdera egin ondoren deskubritu zuen nire heziketa erlijiosoa zenbateraino bilakatua zen ez arrazoizko nahasmen. Eraman ninduen aparte, argitu zidan haragiaren tentazioak ez zeukala ezer ikusterik ez oilaskoarekin ez okelarekin, baizik eta, gizon eta emakumeen arteko musuekin. Probestu nuen ustekabeko aukera hura grina handiz luzatzeko barruan erretzen zidan galdera: “Eta zer esan nahi du larrua jo?” Agindu zidan Jaunartzea egindakoan esplikatuko zidala, baina harez geroztik ez ninduten eraman doktor Gelpinengana eta itxaron behar izan nuen bizitzak erakuts ziezadala kolejioak ukatzen zidana.

Anaiaren itomena gainetik kentzeko behar adina nagusi izatera iritsi nintzenean, entendimendua ixten zizkidaten izuak ttuka botatzea bezala izan zen, eta behin liberatuta, haragiaren tentazioa kirol bihurtu nuen. Ez bakarrik sexu aldetik. Baraualdi zentzugabeko haiei muzin egin nien kantitate handitan janez haragia, gutxi egina, ia gordinik, odolezko herexia bat bezain gorria.

Baina bizitzaren bueltak aurrez jakin ezinezkoak baitira, beti-beti aterako zaizu Bartolome anai bat, erne, festa hondatzeko prest. Nire emazteari buruz ari naiz, barazkijale militantea dena. Bera-entzat ere haragia gizakion etsairik handiena da, eta ahaleginak egiten ditu etengabe niri gogorarazten zeintzuk diren toxinen kalteak, liseriketa sistemaren hauskortasun berebizikoa, animaliei jateko ematen dizkieten zerrikeria kimikoak, pertsonen eta naturaren arteko oreka ekologikoa...

Gure artean liskarrik ez izateko, bere aurrean ez dut haragirik jaten. Lagun arteko afariren batean norbaitek arkume izterra labean errea eskatzen badu, edo beste batek ahatea udareekin, nik txikitan aditzen nuen bezalako haragiaren oihua entzuten dut: “Jan ezazu izter bat, jan ezazu”. Ez dut egiten, baina egoerari eusteak ez du meriturik. Emaztearen behakoak toxinez eta pestizidez blai kentzen dizkit gogoak.

Nolanahi ere den, haragiaren tentazioa ez dut bizitzen haur nintzeneko larritasunarekin. Alderantziz, ohitu naiz haragijale klandestinoaren bizimodu bikoitzari. Etxean barazkijale naiz, kosta ala kosta;berriz, ahal dudan guztietan lau behatz lodi den xerra bat oparitzen diot nire buruari. Bartolome anaiak aurreikusi ez zuen plazer zerutiarra da, seguruenez nire zorion sekretua. ■